

# **RASFF TXOSTENA**

## **ALERTAK eta JAKINARAZPENAK**

### **ELIKAGAIAK**

#### **2016ko HIRUGARREN LAUHILEKOA**

**Jakinarazpenen kategorizazioa**

**Jakinarazpenen jatorria**


**Kutsadura iturrien sailkapena**

**Kutsatzaile nagusiak eta inplikaturako elikagaiak**

**Etiketetan adierazi gabeko alergenok**


### **JAKINARAZPENEN KATEGORIZAZIOA**

2016ko hirugarren lauhilekoan animalien elikagaiei buruzko 894 jakinarazpen izan dira. Horietatik 257 alertak izan dira (%29), 271 informazio-jakinazpenak (%30) eta 366 mugan egin diren ukapenak (%41).



### **JAKINARAZPENEN JATORRIA**

Kutsatutako produktuen jatorrizko herrialdeak hurrengoak izan dira:




Asiari dagokionez, kutsatzaileen % **34a Turkiakoak** dira eta jarraian **India** dugu: kasuen % **15,5a**. Europari dagokionez, jakinarazpen gehien sortu dituen herrialdea **Polonia** izan da, % **15**arekin. **Afrikaren** kasuan, **ez da herrialderik nabarmentzen**. Azkenik, **Amerikaren** kasuan **EEBB** dira jakinarazpen gehien sortu dituztenak (%62a).

### **KUTSADURA ITURRIEN SAILKAPENA**

2016ko 3. lauhilekoan zehar, Europako Informazio Azkarraren Sistemak (RASFF) **elikagaien 894 alerta eta jakinarazpen** berri eman du. Jakinarazpen guztietatik, kutsadura iturriei dagozkien zenbatekoak honako hauek dira:

<b>Kutsadura iturriak</b>	<b>%</b>
Kutsadura biologikoa	%23
Mikotoxinak/biotoxinak	%21,5
Iruzurrak	%18
Hondakinak	%14
Kutsadura kimikoa	%9,5
Produktuaren egoera higieniko txarra	%6
Metal astunak	%4,5
Kutsadura fisikoa	%3



## **KUTSATZAILE NAGUSIAK ETA INPLIKATUTAKO ELIKAGAIK**

Mikotoxinek eragindako kutsaduren artean, kasu gehienetan, % **80,5**ean, kutsadura **Aflatoxinek** eragindakoa da eta, horrelakoetan **kakahueteak** kutsaduren % **33a** eragin du. Kasu gehienetan (% **35a**) kakahuetea **EEBBetatik** zetorren.

**Kutsadura biologikoei** dagokienez, **salmonelek** kutsaduren % **55,5a** eragin ditu. **Salmonella sp** da talde honetako protagonista nagusia kasuen % **63**an. **Eskorta - hegaztiak** izan dira produktu protagonista %**40,5**eko kasuetan, %**59**ko kasuetan **Europa** jatorria zelarrik. Beste salmonelei dagokienez, % **19,5a** **Salmonella enteritidis** dagokio (oilaskoak eragin ditu kasuen % 50a eta %64ko kasuetan Polonia izan da jatorria) eta %**17,5a** **Salmonella typhimuriumi** (eskorta - hegaztiak eragin dituzte kasuen % 60a, eta %100ean Europa izan da jatorria).

Bestalde, **E.coli** dugu bigarren kutsatzaile nagusia: kasuen % **15a**. Inplikaturako produktuei dagokienez: **mota desberdinetako haragia** (% **55a**). **E.coli**k eragindako jakinarazpen %**65**ek **Europa** jatorria zuten.

Hondakinei dagokionez, **pestizidak** %**81a** dira eta medikamentuak %19a. Pestiziden kasuan, **barazkiak** inplikatuak daude kasuen %**51**an eta gehienak (%**52a**) **turkiarrak** dira.

**Metal astunei** buruz esan behar da **merkurioak** eragin dituela jakinarazpen gehien; zehazki, % **59a**. Ezpatarraina protagonista izan da %**83**eko kasuetan eta jatorria **Espainia** %**58**ean.

ITURRIA	ZK	AGENTEA	ZK(%)	PRODUKTU ERAGILEA	ZK(%)	JATORRIA	ZK(%)
<b>Mikotoxinak/Biotoxinak</b>	193	<b>Aflatoxinak</b>	155 (80,5%)	kakahueteak	51 (33 %)	USA	18 (35%)
<b>Kutsadura biologikoa</b>	206	<b>Salmonella sp.</b>	114 (55,5%)				
		<i>Salmonella sp.</i>	72 (63%)	eskorta-hegaztiak	29 (40,5%)	Europa	17 (59%)
		<i>S.enteritidis</i>	22 (19,5%)	oilaskoa	11 (50%)	Polonia	7 (64%)
		<i>S.typhimurium</i>	20 (17,5%)	eskorta-hegaztiak	12 (60%)	Europa	12 (100%)
		<b>E.coli</b>	31 (15%)	haragi desberd.	17 (55%)	Europa	11 (65%)
<b>Metal astunak</b>	39	<b>Merkurioa</b>	23 (59%)	ezpatarraina	19 (83%)	Espainia	11 (58%)
<b>Hondakinak</b>	123	<b>Pestizidak</b>	100 (81%)	barazkiak	51 (51%)	Turkia	26 (52%)
		<b>Botikak</b>	23(19%)	ez da produkturik nabarmentzen			

## **ETIKETAN ADIERAZI GABEKO ALERGENOAK**

Jakinarazitako iruzurren kasuetatik %25a (40 kasu), hau da kasuen ia erdia, **etiketan alergenok ez dituztelako adierazi** izan dira.

ELIKAGAIA	Nº (%)	JATORRIA	Nº (%)
<b>Plater prestatuak</b>	13 (32,5%)	Europa	10 (77%)
<b>Fruitu lehorrak</b>	10 (25%)	Asia	8 (80%)
<b>Konfitegintza, gozogintza eta pastelgintza produktuak</b>	7 (17,5%)	Europa	5 (72%)
<b>Bestelako elikagaiak</b>	10 (25%)	Europa	8 (80%)